

## PINTURA PRAKTIKA BATEAN OINARRITUTAKO HAUSNARKETA

**Tesiaren egilea:** Aitor Irulegi Lopez

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Pintura Saila

**Tesi-zuzendaria:** Genoveva Linaza Vivanco eta Isusko Vivas Ciarrusta

**Tesiaren laburpena:**

Tesi hau arte-praktikan oinarritutako ikerketa bat da. Pintatzeak eragindako pentsamendua da gaia, pintura barrutik esperimintatzearen hausnarketa. Nola garatu pintorearen esperientzian oinarritzen den ezagutza? Nola egituratu pentsamendu hori? Problematika zabal honen aurrean, nire pintura-praktika propioa abiapuntutzat hartzen dut eta lan pertsonala komentatzeari ekiten diot, eta 2014tik 2019ra bitartean egindako lanaren aukeraketa batean oinarrituko komentarioak gauzatzen ditut.

Funts nagusia da, ardatz baten moduan, pintura-praktika propioaren inguruan sortzen den dimentsio teorikoaren eta praktikoaren artean lotura organiko bat dagoela. Tesi honen ikerketa-lerro zehatzak *Sorkuntza, ikerketa modura / Ikerketa, sorkuntza modura* izena du. Bertan, sormena edo arte-praktika bera ikerketa moduan defendatzen da. Lan pertsonalaren barne-ardatza arakatzeko topatu dudana metodoa beste pintore batzuentzat ere baliagarri izatea nahi dut.

Emaitza pertsonalak diziplina ezberdinetatik etorriak dira, baina nik horiek emaitza piktorikoak balira bezala hartzen ditut kontuan. Gorago esan dugun moduan, hipotesia da autore baten pinturaren baitan emandako praktikak eta teoriak lotura organiko bat dutela. Carl Gustav Jungek esandako hura («Desordena orok dauka ezkutuko ordena bat») hipotesizat hartu dut nire lanean. Susmatzen dena da gorpuztu dudana praktikaren eta teoriaren artean badela ordena bat, ardatz bat, lotura organiko bat.

Bi komentario mota ezberdinez baliatzen naiz. Lehenik, emaitza piktoriko pertsonalak komentatzen ditut, hau da, koadroak. Bigarrenez, prozesuan bertan izandako pentsamendua egituratzen dut. Horretarako nire lan piktorikoaren prozesuan bertan idatzitako albo-komentarioez baliatzen naiz.

Nire ondorioak eta beste ikertzaileenak elkarri lotuz osatzen da ikerketaren emaitza. Ez da izango nik diodana bakarrik, ezta besteek diotena ere, elkarrekintzan garatu den pentsamendua baizik.

Nire lanaren ardatza edo zentzua hitzez jartzean, desio, intentzio eta kezken formatua hartu dute. Erantzun gabeko galderak sufrimendua eragiten du, erantzundakoak asegabetasuna. Pinturak galderari erantzuten dio erantzun gabe.